

BESTELAKO XEDAPENAK

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

2860

77/2022 DEKRETUA, ekainaren 7koa, zeinaren bidez aldatzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioko lanpostu-zerrendak onartzen dituzten dekretuak.

Hainbat dekreturen bidez onartuz joan dira, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileen lanpostu-zerrendak. Horrela, besteak beste, honako hauek aipa daitezke:

224/2012 Dekretua, urriaren 23koa, Vitoria-Gasteizko barruti judizialari dagozkion Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioko lanpostu-zerrendak onartzeko dena.

29/2018 Dekretua, otsailaren 27koa, Donostiako Bulego Judizialari eta Gipuzkoako Probintzia Auzitegiari dagozkien Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioko lanpostu-zerrendak onartzeko dena.

Lanpostu-zerrendak Justizia Administrazioaren barne-egiturak antolatzeko baliabideak dira. Beraz, indarrean dauden prozeduren arabera izapidetu ondoren, aldeko txostena jaso duten aldatetako lanpostu-zerrendetan sartu behar dira aldian-aldian, Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 521., 522. eta 523. artikuluetan ezarritakoa betetzeko.

2021eko abenduaren 1ean argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean azaroaren 30eko 1052/2021 Errege Dekretua, 2021eko programazioari dagozkion berrogeita hamasei unitate judizial sortzeari buruzkoa. Unitate horien artean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi unitate berri daude: Vitoria-Gasteizko Lehen Auzialdiko 9 zenbakiko Epaitegia eta Donostiako Merkataritza Arloko 2 zenbakiko Epaitegia.

2022ko otsailaren 26an argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean otsailaren 23ko JUS/123/2022 Agindua, 2021eko programazioari dagozkion hiru epaitegi martxan jartzea xedatzen duena, martxan jartzeko data gisa 2022ko ekainaren 30a hartuta.

Dekretu honen xedea da, beraz, lanpostu horiek goian aipatutako dekretuen bidez onartutako lanpostu-zerrendetan sartzea.

Horrenbestez, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak 2022ko ekainaren 7ko egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Dekretu hauen bidez onartutako lanpostu-zerrendetan egindako aldatetako onartzea, dekretu honen eranskinean aurreikusitako baldintzetan:

224/2012 Dekretua, urriaren 23koa, Vitoria-Gasteizko barruti judizialari dagozkion Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioko lanpostu-zerrendak onartzeko dena.

29/2018 Dekretua, otsailaren 27koa, Donostiako Bulego Judizialari eta Gipuzkoako Probintzia Auzitegiari dagozkien Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioko lanpostu-zerrendak onartzeko dena.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Dekretu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, haren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioko Gobernu Kontseiluari, hilabeteko epean, dekretua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, dekretua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko ekainaren 7an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua,
BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ.

2022ko ekainaren 23a, osteguna

EKAINAREN 7KO 77/2022 DEKRETUAREN ERANSKINA

ALDAKETEN ZERRENDA

ARABA

Aldaketa-mota: Sorrera.

Saila: Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politikak.

Zentro kudeatzailea: Justizia Administrazioko Zuzendaritza.

Destinoko zentroa: Zuzeneko Laguntza Emateko Unitate Prozesalak.

Udalerria: Vitoria-Gasteiz.

Aldaketa mota	Lanpostua	Dotazioa	Lanpostuaren izena	Lanpostu mota	Udalerria	Betzeko era	Taldea / Azpitalea	Kidegoa	Titulazio akademikoa	Berriazko jakintzak	Dedikazioa	Hizkuntza-eskakizuna	Hizkuntza-berezitasunaren data	Esperientzia	Lanpostuaren osagarri orokorra	Berriazko osagarria	Oharrak
Sorrera	480019	23	Proz. eta admi. kudeatzailea ZULUP Zibila	O	Vitoria-Gasteiz	OL	A2	Proz. eta admi. kudeaketa	Diplomatura		% 100	Hizkuntza-eskakizuna			3.920,04	10.231,56	
Sorrera	480019	24	Proz. eta admi. kudeatzailea ZULUP Zibila	O	Vitoria-Gasteiz	OL	A2	Proz. eta admi. kudeaketa	Diplomatura		% 100	Hizkuntza-eskakizuna			3.920,04	10.231,56	
Sorrera	580020	9	Proz. eta admi. izapidegilea ZULUP Zibila	B	Vitoria-Gasteiz	BL	C1	Proz. eta admi. izapidetzea	Batxilerra edo ballokiea		% 100	Hizkuntza-eskakizuna			3.332,76	7.554,36	
Sorrera	580020	10	Proz. eta admi. izapidegilea ZULUP Zibila	B	Vitoria-Gasteiz	BL	C1	Proz. eta admi. izapidetzea	Batxilerra edo ballokiea		% 100	Hizkuntza-eskakizuna			3.332,76	7.554,36	

2022ko ekainaren 23a, osteguna

GIPUZKOA

Aldaketa-mota: Sorrera.

Saila: Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politikak.

Zentro kudeatzailea: Justizia Administrazioko Zuzendaritza.

Destinoko zentroa: Zuzeneko Laguntza Emateko Unitate Prozesalak.

Udalerria: Donostia.

Aldaketa mota	Lanpostua	Dotazioa	Lanpostuaren izena	Lanpostu mota	Udalerria	Betetzeko era	Taldea/Azpitaldea	Kidegoa	Titulazio akademikoa	Berriak jakintzak	Dedikazioa	Hizkuntza-eskakizuna	Hizkuntza-berezitasunaren data	Espertentzia	Lanpostuaren osagarri orokorra	Berriak osagarria	Oharrik
Sorrera	480044	14	Proz. eta admi. kudeatzailea ZULUP Zibila	O	Donostia	OL	A2	Proz. eta admi. kudeaketa	Diplomatura	Berriak jakintzak	% 100	Hizkuntza-eskakizuna	Hizkuntza-berezitasunaren data	Esperientzia	3.920,04	10.231,56	
Sorrera	480044	15	Proz. eta admi. kudeatzailea ZULUP Zibila	O	Donostia	OL	A2	Proz. eta admi. kudeaketa	Diplomatura	Berriak jakintzak	% 100	Hizkuntza-eskakizuna	Hizkuntza-berezitasunaren data	Esperientzia	3.920,04	10.231,56	
Sorrera	480044	16	Proz. eta admi. kudeatzailea ZULUP Zibila	O	Donostia	OL	A2	Proz. eta admi. kudeaketa	Diplomatura	Berriak jakintzak	% 100	Hizkuntza-eskakizuna	Hizkuntza-berezitasunaren data	Esperientzia	3.920,04	10.231,56	
Sorrera	580046	20	Proz. eta admi. izapidegilea ZULUP Zibila	O	Donostia	OL	C1	Proz. eta admi. izapidetzea	Batxilerra edo baliokidea	Berriak jakintzak	% 100	Hizkuntza-eskakizuna	Hizkuntza-berezitasunaren data	Esperientzia	3.332,76	7.554,36	
Sorrera	580046	21	Proz. eta admi. izapidegilea ZULUP Zibila	O	Donostia	OL	C1	Proz. eta admi. izapidetzea	Batxilerra edo baliokidea	Berriak jakintzak	% 100	Hizkuntza-eskakizuna	Hizkuntza-berezitasunaren data	Esperientzia	3.332,76	7.554,36	
Sorrera	580046	22	Proz. eta admi. izapidegilea ZULUP Zibila	O	Donostia	OL	C1	Proz. eta admi. izapidetzea	Batxilerra edo baliokidea	Berriak jakintzak	% 100	Hizkuntza-eskakizuna	Hizkuntza-berezitasunaren data	Esperientzia	3.332,76	7.554,36	